

piztiak
esnatzen
direnean

MAITANE PEREZ



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MAITANE PEREZ

Piztiak esnatzen direnean

AJANGIZ-ERRIGOITI-MUXIKA

BASURDEAK

GU LEHEN ez geunden hemen. Gu lehen han geunden. Urruti. Hemen gure senideak zeuden, batzuk, gutxi batzuk. Padurak zeharkatzen zituzten, eta basoak, eta xirripak, eta errepideak, eta herriak, eta itsaso usaina duten errekek, eta pertsonak hartutako lurak. Gu lehen ez geunden hemen. Baina etorri ginen. Bultzatu gintuzten. Sugar gorriek eta horiek eta laranjek. Gari soro osoak sutan, ezaguna genuen guztia sutan. Eta keak, arnastu ezineko keak. Eta beroak, azal erreak, usain bortitzak. Bultzatu gintuzten eta etorri ginen, ihesean, itsu, jakin gabe baina jakinda, antzinako ibilbideak gure zainetan idatzirik ditugulako guk, guk denok, gure senideek eta guk eta gure seme-alabek eta oraindik jaiotzeko direnek. Eta hona etorri ginen, arrotzak zitzaizkigun baso hauetara, gu eta gure seme-alabak. Hona etorri ginen, usain pozoitsua duten zuhaitzak dauden tokira, kraskaka gure apatxen azpian apurtzen diren hosto kurruskariak dituzten baso faltsuetara. Eta betiko basoetara, gureak direnetara, baso berdeetara, sasieta, lizarretara, ezkurretara, zizaz eta urez betetako lurretara. Hona etorri ginen korrika bizian, ihes bizian, sugarretatik eta ketik eta heriotzatik eta biriketako minetatik ihesi. Eta han bezala gureak dira basoak hemen, gure aurrekoenak eta ondorengoak. Han bezala hiltzen gara hemen. Han bezala hiru hilabete, hiru aste, eta hiru egunetara jaiotzen gara hemen. Han bezala hiltzen gaituzte hemen, zuhaitzen atzean ezkutatzen direnak, zaunkaka dabilzanak. Eta han bezala korrika egiten dugu hemen, lurak altxatzen ditugu hemen, elikatzen gara hemen; bizirauten dugu hemen, han bezala: gureak diren basoetan.

GAUEZ GIDATZEA

ZATA BATEK larri saihestu du autoaren kontrako kolpea. Entzun izan du txori hauei buruz, gauez ibiltzen direnak, isilak, agresiboak, errepide erdian geldi-geldirik egoten direnak eta bat oso gertu egon arte mugitzen ez direnak, eta orduan abiadura bizian hegan egiten dutenak, zerotik ehunera, zure kotxearen kontra.

Atzeko ispiluari begiratu dio animalia hobeto ikusi nahian, baina iluntasunak ez dio aukerarik eman. Iluntasunak ez dio aukera handirik ematen iluntasuna ulertzeko gai ez denari. Leihoak erabat ireki ditu, gaueko airea arnasteko. Usainak eta soinuak kotxe barruan sartu zaizkio kolpez: pinu bustien usaina eta eltxoen zurrumbiloa, mozolo baten ulua, atsedetik hartzen ez duten urrutiko behien zintzarriak.

Freskatu du gauak, egun sargoriaren ondoren. Ekaitzaren aztarnak nonahi, basoa zeharkatzen duen errepide bihurri horren alboetan putzu txikiak ageri dira, eta zuhaitzetatik euri-tantak erortzen dira ekaitzaren memoriari ohore eginez. Isiltasun faltsu batek hartu du basoa, ezkutuan dagoenaren konplize. Isildu dira jada tiro hotsak, arratsaldea zulatu dutenak, inguruko baserrietako txakurrak zaunkaka jarri dituztenak. Eguneke soinuek gauekoei lekua egin diete; gaua esnatzen doa.

Bide luzea dauka oraindik landetxera iristeko, baina ez zaio axola. Bide zuzenagoa eta erosoagoa hartu zezakeen baina nahita hartu du hau. Lehenago irits zitekeen, baina ez du nahi izan.

EZ DAKI ZEHAZKI noiz hasi zitzaion gauez gidatzeari dion afizioa. Lehen nekagarria zitzaion, aspergarria, luzea. Saihestu egiten zuen. Orain bilatu egiten du, beharra dauka. Ohitu da, agian. Lanagatik, egunak luzatzeko gogoagatik, edo bakardadea disfrutagarri bihurtzen ikasi duelako, beharbada. Autobide eta karretera handiak utzi eta bigarren mailako errepide bihurrietan gidatzeari gustua hartu dio. Poliki joateari. Musika eten eta soinuak entzuteari. Poliki gidatzean gehiegi pentsatzeko arriskua dago, baina arriskuan egotea gustuko du. Oroitzapenak ager daitezke, agertzen dira, edozein momentutako oroitzapen konkretu edo lausoak, eta haiek etortzea baimentzen du, arriskutsua izan arren, zauriak irekitzeko arriskua egon arren. Bigarren

mailako errepideetan gidatzen dabilenetik ertzetara adi egoten da, erne, basapiztia noiz agertuko zain.

Duela urte batzuk ikusi zuen lehenengo aldiz basurde bat errepidean, oraindik gauez gidatzea gehiegi gustuko ez zuenean. Bilera nahi baino gehiago luzatu zitzaion eta iluntasunean etxera bidea hartu zuen, adi, urduri, begiak eta burua nekaturik. Karretera estua zen, iluna, herri txikien artekoa, eta pixka bat aurrerago linterna batekin seinaleak egiten zizkion gizon bat antzeman zuen. Abiadura moteldu eta berarengana iritsi zenean, gizona baino pixka bat aurrerago kotxe bat geldirik zegoela ikusi zuen, eta haren ondoan emakume bat. Gizonak urduri kontatu zion basurde talde handi bat gurutzatu zitzaizela kotxe aurretik eta horietako baten kontra talka egin zutela, eta abisatu nahi zuela, motel joateko, asko zirelako eta badaezpada baten bat gehiago gurutzatuko ote zen beldur. Eskerrak eman zizkion eta aurrera jarraitu zuen, mantso, emergentzia argiak pizturik. Gelditutako kotxea aurreratzerakoan aurreko partea erabat txikituta zuela ikusi zuen, harkaitz baten kontra jo izan balu bezala. Eta pixka bat aurrerago basurdearen gorpua ikusi zuen lurrian. Benetan handia zen, ileak zikin, odolez estalita. Bizirik gabeko animalia neurrigabea. Arnasarik gabekoa, begiradarik gabekoa, basorik gabekoa. Nahigabeak hartu zuen, eta aurrera jarraitu zuen ertzei arretarik kendu gabe, soroetako iluntasunean beste piztia batzuk identifikatu nahian, motel, gorpuaren irudia buruan eta nekea begietan, etxera iritsi arte.

MALDA PIKOKO KARRETERA ESTUAK aurrera egiten du sastraka artean, pinudi zaharrean sartuz. Azken eguna dauka eremu honetan, bihar autobidea hartu beharko du. Basapiztien presentzia desagertuko da. “Kontuz, orkatzak” dioten seinaleak desagertuko dira. Horregatik erabaki du bide hau hartzea, luzeagoa, deserosoagoa, arriskutsuagoa dena. Helmugara iristeko modu asko baitaude, azken finean.

Azken egunetan baserritarrekin izandako elkarrizketak biltzen dituen koadernoan alboan dauka, eta artikuluari forma nola emango dion pentsatu beharko lukeela badakien arren, nekatuta sentitzen da, gau-haizeak pentsamenduak labainduta. Baserritarrek kontatutakoak buruan bueltak ematen dabilzkio etengabe azken egunetan, batez ere, ziztada egin dioten horiek, artikuluan nola edo hala sartu nahi dituen horiek. Baina antolamendu on bat topatu behar du, egestura bat, modu bat, eta horretarako mahai lana egin beharko du. Kontzentratu beharko

du, bihotzetik paperera mugitu, burutik teklatura eraman, lanean jarri. Eta horretan tristurak ez dio laguntzen.

Ez daki zehazki noiz hasi zitzaion gauez gidatzeari dion afizioa, baina badaki oroitzapen zehatz batzuetara lotuta dagoela, zehaztu ezin dituen arren. Badaki galdu duenarekin lotuta dagoela, faltan botatzearekin. Badaki basurdearekin topo egin zuen lehen aldi harekin lotuta dagoela. Eta gurutzatu zaizkion hurrengo aldi guztiekin ere. Horrek ekarri duela hona, eremu honetara, artikulu honetara, bizipen honetara. Eta arrisku hori berriro bizi nahi duela, gertatu ez zen begirada horren beharra duela. Eta horren bila doala, gau honetan, hemen, azken aldiz.

BASERRITARRAK: 1

“PINUDIA BERTAKOTUA DAGO baina ez da bertakoa, bertakotua dago duela hirurogeita hamar urtetik edo. Lehen ez zegoen pinurik hemen, eta ez zegoen hainbeste baso ezta ere, e! Gaztainak eta bai... Basurdeak eta orkatzak ere ez zeuden. Duela hogeita hamar urte edo etorri ziren. Erbiak bai, asko. Asko harrapatzen ziren. Aitonak hartzen zituen afarirako. Azeriak ere bai, lukiak. Aldatu da dena. Baso mota aldatu da, jada ez dago hainbeste erbi. Lehen sorbeltzak ehunka zeuden baina desagertu egin dira, eta saguzarrak berdin. Jada ez dago enararik ia. Kaioak datoz batzuetan. Landa handietan belarra mozten dutenean animalia txikiak, karakolak, zizareak, babesgabe geratzen dira, eta orduan kaioak etortzen dira. Ikusi izan dut batzuetan landa osoa zuria, kaioz beterik. Eta nola dakite? Hori ez dut inoiz ulertu. Nola dakite kostaldean dauden kaioek hainbeste kilometro barrurago zelai batean belarra mozten ari direla? Beste egunean belarra moztu genuen eta zikoinak etorri ziren, hori oso arraroa da. Eta belatzak. Eta orkatz txiki bat agertu zen saltoka. Zortea, ze asko makineriak hilda agertzen dira. Hor hil zuten bat, hango soroan. Eta putreak dozenaka etorri ziren. Putreak benetan ikaratzekoak dira. Lehen ez genituen hemen hainbeste putre ikusten, hori ere berria da. Eta orkatz ama putreei aurre egiten saiatzen zen, e! Baina keba, hogei minututan ez zen ezer geratzen. Burutxoa bakarrik geratu zen, gogorragoa delako edo. Eta hor egon da, soroan, luze”.

ZAUNKA EGITEN DUTENAK

ZALAPARTAKA IRITSI DIRA, hortzak erakusten, listua botaz, begiak sutan. Usaindu ditut, hurbiltzen. Arnasketa entzun diet. Giharrek tenkatu ditut baina azkarrek dira, azkar egin dute salto nire gainean, hortzak nire hanketan, nire sabelean, nire bizkarrean sartzen saiatu dira. Haienak dira, hiltzen gaituzten horienak. Haien usaina dute. Zaunka egiten duten hauen atzetik dator beti heriotzaren hotsa, hots sarkor, seko, ilun hori. Erre usaina duen hori. Nire anai-arrebak, nire ama, nire aurrekoak eta nire ondorengoak hiltzen dituen soinu hori. Betortzekin defendatu dut nire burua, eta sorbaldekin, eta buruarekin, eta gorputzarekin, indarrez, indar guztiaz, min guztiaz. Eta korrika egin dut, jatorrian bezala, amak erakutsi bezala, korrika, sasien artean, sastraken artean, zaunkak atzetik, hotsak atzetik, eta korrika, trostan, trostan, atzera begiratu gabe. Eta hiltzen duen hotsa etorri da. Bitan. Hirutan. Baina ez nau hil. Eta korrika korrika korrika egin dut, urrutira iritsi arte. Errekara iritsi arte. Eta geldirik geratu naiz, harramazketako odola usainduz. Eta pixkanaka beste usainak itzuli dira, mina ematen ez dutenak, on egiten dutenak, hosto zapalduena, bareena, intsusena, haltzena, azeri buztanena, igelena. Eta isiltasuna etorri da, baina ez da aurrekoa, ez da lotan hasi nintzenekoa, ez da hiltzen gaituztenak agertu aurrekoa, ezberdina da, itxia, dentsoa, arriskutsua. Begiak ez ixtekoa.

ARTIKULUTIK KANPOKO NOTAK:

DEFINIZIOA

BASURDEA DA GAUA. Basurdea da basoa, lainoa. Basurdea da kolpatzea, korrika egitea, azala ondo babestea, azal gogor urratua. Basurdea da basatia izatea. Basurdea da nekatu gabe kilometroak ibiltzeko gai izatea. Babeslekitik mundua zelatatzea. Basurdea da lurraren mugimendua nabaritzea. Amets egitea. Faltan botatzea. Basurdea da begirada lausoa, distortsioa, itsutasuna. Ez-ikusiz mundua ulertzea. Basurdea da pausoen soinua hosto bustien gainean. Basurdea da indarra. Basurdea da erasoa, kidetasuna, sena, bakardadea. Basurdea da dolua. Iluntasunean bidea topatzea, ezintasunean bidea topatzea. Gogortasuna. Hotza. Basurdea da euriaren soinua. Basurdea da gauari itxarotea. Basurdea da sima bat, eta kobazulo bat, eta sasi ezinezkoak. Basurdea da lohia. Basurdea da bizkarra bizkarraren kontra. Lokatzaren zaporea ahoan sartzea. Basurdea da suntsitzaile bihurtzea. Etsaiak onartzea. Basurdea da tabernako paretan zintzilik dagoen burua. Harrotasuna. Basurdea da gaueko soinu guztien bilduma. Urrutikoa intuitzea. Alerta. Basurdea da argiek begietan min ematea. Basurdea da kotxe bozina bat entzutea hil aurretik. Basurdea da gorpu bat errepidean. Basurdea da desagertzea. Basurdea da oihu egitea.

BASERRITARRAK: 2

“GAUEAN OILOEK kristoren zalaparta egin dute, kakarakaka ero moduan, esnatu gaituzte, eta iritsi garenean han topatu ditugu, hilik, lepoetan letaginen markak eta gorputzak hustuta. Sutan, sutan jarri naiz. Ez da lehenengo aldia, e! Erbinudea nondik sartu den bilatzen egon gara, baina keba, ez dago zulorik, ez dugu ezer topatu. Gaur hesiak sendotu beharko ditugu. Eta sarraskia garbitu, noski. Odola barreiatu oilategi osotik, usain bortitza zuen odolak, erbinudeak edan ez duen hori. Erbinudeak odola zurruputzen die oiloei eta alde egiten du. Ez du merezi, oilorik izatea! Erbinudea ez bada azeria da edo bisoia edo belatza. Denak desagertzen dira, banan-banan. Azeriak oiloak eramaten ditu, bisoiak burua kentzen die, erbinudeak odola edan eta bertan uzten ditu, hutsik... Oiloetako bat bizirik zegoen oraindik iritsi garenean, gixajoa, odol pitin batekin bizirauten, sufritzen, mokoia irekitzen soinurik atera gabe eta begiak buelta emanda. Akabatu egin dut, esku hauekin, oiloaren burua esku batez hartu, gorputza besteaz, eta krak. Ohituta nago. Eta ohera itzuli gara. Zer egingo diogu ba? Amorrua etxeko zapatilak odolez zikindu zaizkidala”.

MATARRASA

MATARRASA EGITEN DUTENEAN errepideak lurrez betetzen dira, usainak aldatzen dira, bideak apurtzen dira, kamioien gurpilak nonahi markatuta agertzen dira, berdea zena marroi bihurtzen da, marroi nahasia, marroi hila. Matarrasa egiten dutenean paisaiaren eremu bat guztiz eraldatzen da, txoriek alde egiten dute, ugaztun txikiek alde egiten dute, izandakoaren memoria besterik ez da geratzen. Bizitzatik ezerezera, suntsiketa, hustuketa.

Gau itxian bizitza darion basoan barna dabilela, kotxeko argiek argiztatzen duten errepide zatiari adi, arratsaldean zeharkatu duen triskantza hura datorkio burura, zuhaitz guztiak errotik ateratako landa bisitatu dueneko.

TXIKITUTAKO LUR EREMUAK lehenago egondakoa iradokitzen zuen. Egondakoa eta desagertutakoa, egon daitekeena, egon litekeena, egon zitekeena. Bele batzuk bueltaka ikusi ditu arrasatutako landaren gainetik, oraindik bizirik geratzen ziren zizareen bila. Lursailari begira egon da denbora luzez, paisaia ulertu nahian. Alde batera bertako baso umila, beste aldera eukaliptoak, atzean sasiz betetako zelaia, argindar-dorreak eta kableak, zuhaixkak eta garoak, eta aurrean matarrasa egindako landa, lur nahastua, lur hila. Eta lurraren gabeziak bereak ekarri dizkio gogora, bere faltak. Urruntzea erabaki zuen hura ikusi zuen azken aldia zein izan zen gogoratzen saiatu da, baina ez du lortu. Eta galdetu ezin izan dizkion guztiekin zerrenda bat egin beharko lukeela pentsatu du. Eta hark adiskidetasunari jarritako harresiak bera hutsunean utzi duela baieztatu du, barruan dituen zalantza, oroitzapen, behar eta amorru guztiekin zer egin asmatu ezinik. Aukeratu ez duen absentzia bat onartu behar duela, orain paisaia horrek basoaren absentzia onartu behar duen bezalaxe, eta haserre dagoela, lurra bezala, baina ez bata eta ez besteak ezin dutela horren aurrean ezer gutxi egin. Gizakiek eraikitakoa gizakiek suntsitzen dute. Geuk eraikitakoa zaintzeko eta maitatzeko eskubidea daukagun bezala suntsitzeko eskubidea ere badaukagulako. Gurea delako. Mina kudeatzeko ardura bezala.

Beleen karrankek eta gerturatzen ari ziren trumoiaren soinu mehatxatzaileak urduritu egin dute, eta handik alde egitea erabaki du.

Kotxera bueltako bidean, pinudi txiki baten erdian zezen bat ikusi du, soka batez enbor bati lotuta. Zezenak burua altxatu eta zuzen begira geratu zaio, belar garaien artean. Erabat arrotza egin zaio irudia, zuhaitzen arteko distantzia artifiziale, zuhaixkarik edo sasirik gabeko basoa, zezenaren arraza berezia, argitasuna. Lekuz kanpo sentitu da, lekuz kanpo dagoela dakien honetan. Eta baserritarren kontuak etorri zaizkio burura, batez ere kitzikatu duten horiek. Eta landetxera itzultzea erabaki du, gaueko piztiak esnatzera doazen ordu horretan, eguzki argia lausotzen ari zela, zezenaren begirada trinkotik ihes egin nahian.

Herriko errepide nagusitik gidatzen zihoala, enara eta xomorroen artean, paisaiaren transformazioa aztertu du, argitik ilunera pasatzeko une hori, ertzak nabarmen egiten diren une hori. Mendien ertzak, zuhaitzen ertzak, baserrien ertzak, ilunaren tonu ezberdinen arteko mugak. Eztanda egin du ekaitzak bat-batean, bortizki, eta euriak gogor kolpatu du kotxeko kristala, ezer ikusten ez uztera iritsi arte. Abiadura moteldu du, eta haizetako-garbigailuak martxa azkarragoan jartzen saiatu da. Larri saihestu du semaforoan geldirik zeuden beste kotxeen kontrako talka. Urduri, arnasketa lasaitzen saiatu da, eta euriak deformatutako semaforoko argi gorriari begira geratu da.

Errepidearen bi alboetan mendixkak eta bertako basoen siluetak antzematen ziren, matarrasari eskapu egin dioten horienak. Eta aspaldian sentitzen ez zuen bulkada batek aginduta errepide nagusitik atera da semaforoak baimena ematean, eta gorako pista hartu du, bihurgunez betetako bidea egiteko, basoan sartzeko, gauaren testigu izateko, basoaren testigu izateko, badaezpada, desagertu aurretik.

HILTZEN DUEN HOTSA

TRUMOIAK ETORRI DIRA. Tximistak etorri dira. Ekaitza etorri da. Guztiaren gainean erortzen den ekaitza, bizia ematen duena, lurra, hostoak, gibelurdinak, sahatsak, galanpernak esnatzen dituena. Muxarrak aztoratzen dituena. Miruak gelditzen dituena. Ekaitza etorri da soinuak ezabatzeraz, lurra biguntzeraz, usainak aldatzeraz, gauari sarrera ematera, ilunari, gure denborari. Gu, euriaren ostean putzuetan iraulka ibiltzen garenak, hezetasunaz elikatzen garenak, hezetasunean ugaltzen garenak. Ekaitza etorri da eta gelditu naiz, nekeak hartuta, geldi-geldirik, arte zabalaren azpian, euriaren azpian, eztanda egiten zuen zeruaren azpian. Ekaitzak baretu nau, arnasa itzuli dit, gosea ekarri dit. Muturrarekin lurra lardaskatu dut, sustrai hezeen eta barraskiloen eta satitsuen eta indarraren bila. Txakurren usaina daukat gainean, ileetan, hanketan, kirats nazkagarria, txakurren zaunka belarrien barruan. Ekaitza etorri da eta alde egin du gero, beti egiten duen moduan. Euria eten da eta irentsi ditut kakalardoak eta tuberkuluak eta perretxikoak. Eta putzu-zuloak aurkitu ditut, eta lokatz bigun eta gozoaz bete dut azala, eta akainek alde egin dute, eta hotsak esnatu dira berriro. Euria eten da eta basakatua usaindu dut, urubia, lephoria, armiarma. Gaua etorri da, bere iluntasunarekin, eta aurrera egin dut, beste sustrai batzuen bila, lore zurien bila, erraboil mamitsuen bila. Eta orduan izan da. Orduan nabaritu dut, txakurrekin datozenen usaina, jarraitzen gaituztenena, ezkutaturik gure zain egoten direnena, hiltzen gaituztenena. Ni, eta nire senideak, eta nire seme-alabak, eta nire ondorengoak. Usaindu dut eta geldirik geratu naiz, sasi artean, arnasa isilduz, belarriak tenkatuz, muturra alerta, non dagoen ezin asmatu, hiltzen duen hotsaren aurreko klak zorrotza odolean sartu zaidalarik. Klak. Eta sasien artetik abiadura bizian atera naiteke edo geldirik geratu edo mugitzen den edozeren kontra kolpatu edo hil, usain nazkagarria duen hori hil, nire indar guztiz, nire basa guztiz, nire arbaso guztiekin batera, trosta bizian atera eta letaginekin haragia ireki, edo gelditu, geldirik, biziraun, borrokatu gabe, bizirik, defendatu gabe, bizirik. Baina ezin dut ezer egin izan. Eztanda etorri da, bat-batean, txarrak diren gauza guztiak etortzen diren bezala, danbatekoan. Hiltzen duen hotsa. Nire haragian zuloa bihurtu den hotsa, zauria bilakatu den hotsa, mina bihurtu den hotsa, nire garrasiarekin nahastu dena, odolez bete dena, herrenka

trosta bizian atera eta jarraitu nauena, buru barruan, azal barruan, begien barruan, betirako, barruan geratu zaidan hotsa.

BASERRITARRAK: 3

“BASURDEEKIN DAGO ARRISKU GEHIAGO. Horiek kalte handia egiten dute. Soroan, aitzurtu egiten dute dena, muturrarekin lurra altxatu eta laiatuta bezala uzten dute. Landak ere bai... kalte handia egiten dute, kalte handia, baserrietan eta. Dena ateratzen dute horiek. Desastrea. Eta istripuak ere egoten dira, ze kaminoa gurutzatzen dute, eta istripu asko dago. Kontua da basoan jatekorik ez dagoela, eta orduan atera egin behar dira, eta jana soroetan topatzen dute. Patata denak ateratzen dituzte, ilara guztiak. Eta kalak, kala zuriak asko gustatzen zaizkie, kalen erraboilak. Kumeekin badaude edo arriskuan badaude agresiboak dira, bai. Doaz kontra, kontra. Eta gero eta gehiago daude, ze ez dago hiltzerik. Uxaldiak egiten dira, baina ortuak eta soroak apurtu ondoren egiten dira uxaldiak, lehenago egin orde... Urrian ateratzen diren artoak eta indabak jaten dituzte eta orduan egiten dira uxaldiak, baina igual urri erdian edo egiten dira, eta ordurako jada arloak apurtuta daude”.

PIZTIAK ESNATZEN DIRENEAN

KOTXE BAT AGERTU DA kontrako norabidean, argi luzeak jarrita. Gizon bat dator kotxean, egun hauetan elkarriketatu dituen nekazari horien itxurakoa, masailak ilun eta begiak gauari ohituak. Errepide estuan ez dago bientzako leku nahikorik eta gizonak ez du egiten alboratzeko keinurik. Azkenean bera alboratu da ertzera pixka bat, belarrak zapalduz. Zanpatutako apo baten irudia etorri zaio burura. Buruarekin eskerrak emateko keinua egin dio gizonak, serio. Badaki zer pentsatzen egongo den, nora ote doa kanpotar hau ordu hauetan baso honetatik, nor izango da, zertan ariko da. Begirada itzuli dio, labur, eta bolanteari begira geratu da, gizona pasa bitartean. Atzeko ispilutik kotxearen argiak urrundu direla ziurtatu du, eta pixkanaka atera da errepide ertzetik, aurrera jarraitzeko. Apoaren irudia hor geratu da, tripak kanpoan.

Aurrera egin du pixka bat, basoa ilunago eta sendoago bihurtu den arte. Bertan kotxea gelditzea erabaki du, errepide erdian, agertu den beste kotxe horrekin gaueko kupoa beteta egongo denaren ziurtasunez. Kotxeko argiak itzali ditu eta motorra gelditu du. Leihoak zabalik, hotzikara batek hartu du bere gorputza, gaua eta aire freskoa eta eltxoak kotxera sartu direlarik. Beldur da. Bakarrik dago eta ez du disimulatu beharrik. Beldur da eta ez daki leihoak zabalik mantentzea arriskutsua ote den, zein tamainatako animalia basatiak sar daitezkeen leihotik, bere gainera, eraso egin nahian. Ez du disimulatu behar animalia gehienen izenak ezagutzen ez dituela, nolakoak diren ere imajinatzen ez duela, ez dakiela zeinek jaten duen zein, zeinek akabatzen duen zein, zeintzuk diren oiloak eramaten dituztenak edo bururik gabe uzten dituztenak edo odolez hustuta lurrean hiltzen uzten dituztenak. Ez du disimulatu behar beldur dela, basoak beldurtzen duela, ehizak beldurtzen duela, erasoari aurre egin behar izateak beldurtzen duela.

Aspaldi konturatu zen basapiztiak esnatzen diren ordu berean esnatzen zaizkiola berari minak eta itolarriak. Ilunabarrean bihurtzen direla babesak ahulago. Basoan, gauez, gertatzen diren gauzak eta bihotzean, gauez, gertatzen direnak ez daudela bata bestearengandik hain urrun. Gizakien ekintzak bukatzen direnean hasten dira piztienak, baita barruko piztienak ere. Gauez basoko animalien artean etengabekoa da ehiza, arriskua, alerta, irabaztea edo galtzea. Eta, katajinetari bezala tenkatzen zaio berari ere gorputza gauez harrapakariak agertzen zaizkionean, oroitzapenak, galderak, ulertu ezinekoak, amorrua, gorrotoa eta pena. Gaueko lehia horretan

asko dauka galtzeko edo irabazteko. Azkartasunak eta indarrak biziraupena markatuko du. Basatasun kontua da.

Basoko soinuei adi geratu da une batez, ezagutzen ez dituen hotsek erakarrita. Erabateko iluntasunean dena da handiagoa, beldurrak, eta ausardiak ere bai. Minak, eta barkamenak. Baina batez ere galderak dira handiagoak, erantzunik gabe geratu zaizkion galdera horiek guztiak, beste horrek inoiz erantzungo ez dizkion galderak, betirako berarekin eramango dituenak. Eta bere minaren aurrean bestearen minak zein tamaina duen ulertzen saiatzen da. Eta bere oroitzapenen aurrean bestearen oroitzapenek zein tamaina duten ulertzen saiatzen da. Eta gaez basoko usaina ederra dela pentsatzen du, eta erruak bularrean mina egiten diola, eta ardurak onartzeko gai dela, eta ez dakiela zergatik nahastu duten hainbeste baserritarren kontakizunek, eta basurde-bideak eta basurdeen aztarnak ezagutzen ikasteak poztu egin duela, nahiz eta badakien ezer gutxirako balioko diola. Eta nahiz eta badakien basurdearen begirada topatzeko desioa beste horren presentziaren beharra besterik ez dela. Haren begiradan egia topatzearen beharra, esatera ausartu ez zena, bere barneko egia. Dolua hasi ahal izateko eta dolua bukatu ahal izateko. Ulertzeko. Ulertezina den hori behingoz ahazteko.

Zerbait mugitu da sasien artean, baina ez du ezer ikusten. Hontz handi baten hegaldi leuna sumatu du, gertu, oso gertu. Leihoak ixtea erabaki du, barrura sartu diren sitsak nola aterako dituen pentsatzen duen bitartean, barrura sartu diren basapiztia guztiak nola aterako dituen pentsatzen duen bitartean.

ODOLAREN USAINA

ESTROPEZUKA NABIL, ezin neurtu, ezin usaindu, itsu. Hortzek mina ematen didate lokatzez betetako ahoan, mingainak itotzen nau, neure listuak haginak pozoitzen dizkit. Gorputzak kontra egiten dit, buruak kontra egiten dit, beldurrak hartua nauka. Zuhaitz ipurdiekin talka egiten dut ihes aztoratuan, ihes deskoordinatuan, ihes eroan, nire ezagupenek ezagutu ez duten ihes mingarrian. Lur pusketekin talka egiten dut non ezkutatu topatu gabe. Hiltzen duen hotsa etengabe errepikatzen zait belarri barruan. Bang. Hankak trabatzen zaizkit lur nahasi honetan, zuhaitzak desagertu diren lur hil honetan, ulertzen ez dudan hutsune honetan. Basoa zen aurrekoan, babes ematen zuena, eta desagertu egin da, hontzekin batera, trikuekin batera, saguzarrekin batera. Alderantziz dauden lur zatien artean geldo nabil, ezin azkarrago joan. Instintuak huts egin dit dagoeneko. Neure odolaren usainak zorabiatzen nau. Nire begiak jada ez dira iluntasuna ulertzeko gai. Lagun zaizkidan hotsak topatu ezinean nabil. Eta urrutitik haienak datoz. Leku hau jada ez da nirea. Ezin naiz geldirik geratu, aurrera egin behar dut, aurrera, amak erakutsi moduan, aurrera, jarraitu, hara, beste aldera, babesa eskainiko dizun baso batera, edozein basotara, basora. Ezin naiz gelditu. Jarraitu beharra daukat. Gorputz arrotzak hurbiltzen doaz. Nire odola usaindu dute. Badatoz.

BASERRITARRAK: 4

“ANIMALIEN BELDUR? Ez, ez. Sugeekin bai, belarra moztu eta sugerik agertuko ote den adi egoten naiz, hori bai. Eta txikitan miruekin, adibidez, txitak gorde behar zirelako. Baina bestela... Animaliak gu baino lehenago izutzen dira. Basurdeek, adibidez, gure usainarekin bakarrik alde egiten dute. Baserritar askok ile-apaindegira joan ondoren beraien ilea jartzen zuten soro izkinetan, basurdeak ez hurbiltzeko. Bestela oihu egin behar da, basoan edo, oihu egin eta listo, urruntzen dira denak. Beleak dira beldurgarriak, horiek bai, pinu puntan jartzen direnean eta kra-kra hasten direnean bata besteari deika. Zer antolatzen ariko ote diren... pertsona gaiztoen antza hartzen diet nik, horregatik dira beldurgarriak”.

ILUNTASUNA

GELDI-GELDIRIK DAGO kotxe barruan, mugitzeak izutuko balu bezala, eskuak bolantean pausaturik. Hontzaren hegaldiak nahastuta utzi du, urduri. Inguruan dena da garoz eta ezkutaturiko karraskariz betea. Begirada aurrera zuzenduta dauka, baina ez dago bertako ezeri begira. Ilun dago inguruan, kotxearen kanpoaldean, eta kotxearen barnealdean ere bai, eta bera ez da iluntasuna ulertzeko gai. Beste horrek jarritako distantziak eragiten dion minak bihotz taupadak markatzen dizkio, uluen antzera, aspaldi isildu den okilen zarata erritmikoaren antzera. Armiarma txikiek metalezko estruktura ikertzen dute eta sare txikiak osatzen dituzte gurpilen inguruan, atzerako ispiluen inguruan. Zerbaitek bertan geldirik egotera bultzatzen du, eta ez du joateko inolako imintziorik egiten, ez dio giltzari eragiteko keinurik egiten, oinak pedaletatik urrun ditu. Begirada baten beharra dauka, besterik ez, egiazko begirada baten beharra, gezurrik gabeko begirada baten beharra. Amorruek eta minak lasaitzen lagunduko dion begirada bat, begirada basati eta kontaminatu gabeko baten desioa. Agurtzeko aukera izatea, besterik ez, agurtzeko eskubidea izatea. Arnasa hartu du sakon, hasperen handiaz, eta burua atzera bota du, buru-euskarriaren kontra ezarriz. Begiak itxi ditu, basoko iluntasunari begiratzeaz nekaturik.

Ezagutzen ez duen soinu batek berehala atera du bere deskantsutik. Gauari begira geratu da berriro ere, baina ez du ezer ikusten. Buru gaineko argi txikia piztu du eta ondoko eserlekuan duen koaderno hartu du. Orrialdeak aurrera eta atzera pasa ditu zerbaiten bila, eta topatu duenean gastatzear dagoen boligrafoarekin paragrafo bat borobildu egin du. Ondoren koaderno itxi eta alboko eserlekuan utzi du berriro. Aurreko paneletik lasai dabilen armiarma ñimiño bat zapaldu du esku ahurrarekin.

BASERRITARRAK: 5

“...FURTIBO EDO... esango genuke... ze badaude espera legalak, diputazioak baimena ematen dizuna, eta gero daude ba... espera ilegalak... Erloju zahar horietako batekin tranpa moduko bat egin dezakezu, jakiteko gutxi gorabehera ze ordutan hurbiltzen diren putzura... eta gero ba, debekatuta dago, baina egin daiteke gasolioa bota putzuan edo trapu bat gasolioz zintzilik jarri, eta orduan horrek erakartzen ditu. Beldurra? Bai, bai, eta tentsioa, nondik agertuko den, eta nola... ze armatua zaude, baina bi edo hiru tiro dituzu, huts egin dezakezu, eta horiek arriskuan daudenean ez dute begiratzen... Zertarako hil? Ezertako ez, egiten duten kalteagatik, batzuetan jateko bai, edo txakurrei erakusteko, entrenatzeko, gero ehizan ikasteko. Neuk? Bai, nire ortuan sartzen zirenean hiltzen nituen, bai, txakurrek zaunkaka esnatzen ninduten eta fokuarekin ateratzen nintzen... baina gero marroi bat zen, kotxean hartu behar, basora bota behar... Kaltea oso handia da. Artoarekin egiten dutena ikaragarria da. Artoak jada artaburuak dituenean desastrea egiten dizute, soroan sartzen dira, artoa behetik apurtu, landarea bota eta artaburuak jaten dituzte. Dena txikituta geratzen da, ez dago ezer egiterik... Gasolioarena ez duzu sartuko, ezta?...”.

ARTIKULUTIK KANPOKO NOTAK:

BEGIRADAK

BIDEAN GALDU DITUZUN horien begiradak dira sasien artean ezkutatzen direnak. Zure bizitzaren parte izateari utzi diotenak. Urruntzea erabaki dutenak, noizbait mindu zaituztenak edo mindu dituzunak. Aurpegia ematera ausartzen ez direnak edo aurpegia emango ote duten beldur zaren horiek. Ahazteko gai direnak. Loturak ukatzea erabaki dutenak, desagertzea, ez-existitzea, ezkutatzea. Sasien artean gordeta daude, basapiztien antzera. Ez dituzu ikusten, baina haien presentziak aztoratzen zaitu, ilunduran. Zure bidearen ertzetan makurtuta daude, begira dituzu, usaintzen zaituzte. Haien begien epaiak iluntasunari aurre egiten dio, azalari aurre egiten dio, zure zauriak usaintzeko gai dira. Garoen artean daude, muxarren begietan, katajinetaren begietan, sugeen begietan. Kotxeen kontra kolpatzen diren gautxori horien antzekoak dira, baso barnean zaunka egiten duten orkatzen antzekoak, kotxeak txikitzeko gai diren basurdeak bezalakoak. Ulertzen ez dituzun gauzak dira ahazteko zailenak, eta ezin duzu ulertu noizbait maite izan dituzunak zerk bihurtzen dituen ezezagun. Horregatik da dolua ulergaitza, bukaerarik gabekoa. Eta haien begiradak gainean dituzula zeharkatzen duzu basoa. Eta badakizu, ikusten ez dituzun arren, bere begiek dir-dir egiten dutela zure kotxeko argi gorrixkekin, eta hurrengoan, noizbait, zure bidera aterako direla. Eta gelditu beharko zarela. Gelditu, eta aurpegia eman.

ENKONTRUA

ODOLAREN ZAPOREAK erraboilarena ezabatu du, zizareena, perretxikoena. Dena hil du, itotzen naiz, mingaina puztuta, odolaren zaporea eztarrian gora. Basoak babestu nau azkenean, basoan barna nabil, hezetasunak lagundurik, ezaguna dudan basoak lagundurik, bizirauten. Izterrean zuloa, hiltzen duen hotsa zulo bihurtuta, zauri bihurtuta, min bihurtuta, min ikaragarria, min ezezaguna. Herrenka nabil, motel, zaunka egiten dutenen harramazkak bizkar eta sabelean, instintuak galduta. Eta buruaren barnean hotsa, hiltzen duena, betirako geratu zaidana, betirako nire parte izango dena, badena. Arnastu ezinean muturra lurrari itsatsita nabil bidea ez galtzeko, basoaren babesa ez galtzeko. Aurrera, beti aurrera. Baina basoa amaitu da, beti amaitu ohi den bezala. Eta zapaldu dut, zoru gogorra, artifiziala, ilunean ilunena dena, nire pausoen soinua aldatzen duena. Zeharkatu beharrekoa, simak edo errekek bezala, hildako basoak bezala, lur altxatuak bezala. Belarrak eta garoak eta sustraiak zikintzen zituen odolak lur beltza zikintzen du orain. Muturra hotzaren kontra bestaldeko basoaren arrastoa aurkitu nahian moteldu egin ditut nire pausoak, minak janda. Eta orduan usaindu dut. Biriketaraino sartzen den usain garratza, erakargarria, itsutu egiten gaituena, tranpara eramaten gaituena. Burua altxatu eta hor ikusi dut, nire aurrean, gertu, oso gertu, hiltzen gaituztenek erabiltzen duten oskol handi hori, metal usaineko hori, babesten dituen hori. Geldi-geldirik geratu naiz, belarriak tente, adi. Argi txiki bat piztu da barruan eta atzeraka egin dut ikarak hartuta. Eta ikusi dut, hor barruan, hiltzen gaituzten horietako bat, jarraitzen gaituztenak, zaunka egiten duten horien atzetik datozenak, zuhaitzen atzean ezkutatzen direnak, hiltzen duen hotsaren atzetik beti oihu egiten dutenak. Hor dago baina ez nau ikusten, ez nau begiratzen, ez du iluntasuna ulertzen. Eltxoak, zomorroak, sitsak itsasten zaizkit zaurietan. Har bat pausatu zait odoldutako zuloaren gainean. Minak, beldurrak, hirak hartu naute. Giharrak tenkatu ditut, listua eta odola eta behazuna ahotik darizkit, hortzak estutuz, begietan mina, nire belaunaldi guztien amorruak hartuta, eta garrasi egin dut, nik eta nire senideek, eta nire seme-alabek, eta etorriko direnek, denek nire ahotik garrasika, hemen nagoela esateko, hemen nagoela eta kontuz ibiltzeko eta erasorako prest nagoela eta min jasanezin honekin ere hil zaitzakedala, nik ere hil zaitzakedala. Usain arrotzekoak mugimendu arrotza egin du eta argia itzali da bat-batean, ezkutatu da koldarra, eta zaurian zitzada bortitza

sentitu dut, eta sena entzun dut berriro, aurrera egin behar dudala, aurrera, amak erakutsi moduan, aurrera, jarraitu, hara, beste aldera, basora, basora, basora. Eta korrika egin dut, mantso, oso mantso, basoan sartuz, azala zuhaitzen azalaren kontra igurtziz, hiltzen duena atzean utziz, ikusi ez nauena, begiradarik gabeko enkontru aztoragarria atzean utziz, zomorroak gainetik kendu nahian, aurrera, gelditu gabe, ahal dudan azkarren, ikasi dudan moduan, bizirauten jarraitzeko.

BIZIRAUTEA

ARMIARMAREN ARRASTOAK eskutik garbitzen ari zela entzun du, kurrinka ozena, izu bortitza eragin diona. Azkar goiko argitxoak itzali du, ilunean geratzeak desagerrarazi egingo balu bezala, arriskuengandik babestuko balu bezala. Baina ikusteko premiak astindu du, eta giltzari eragin dio, kotxeko argiak piztuz. Bere aurrean errepidea hutsik dago. Asfalto bustia, besterik ez. Ertzetan belarrak, garoak eta zuhaitz enborrak tente. Alboetara begiratu du, urduri, begitartea zimurtuz, baina ez du ezer ikusten. Eltxoak dozenaka agertu dira argien berotasunarekin jolastera. Sustoa gainetik kendu nahian, burua atzera bota du berriro ere, eta arnasa baretzen saiatu da. Ez daki zer izan den entzun duen hori, ez daki benetan entzun ote duen. Ez daki benetan zertan ari den, mamu baten bila, galdutako oroitzapenen bila, basoaren erdian, basapiztiekin enkontru bat izateko desioarekin, basapiztia bat agertuz gero hiltzeko moduan ikaratuko zela jakinda eta bere burua nola defendatu ideiarik ere izango ez duela jakinda. Iluntzean landetxera bidean zihoan eta hara non ikusi duen orain bere burua, basoaren erdian, gauaren erdian, kotxe batean sartuta babesean sentitzeko eta hala ere beldurrak harturik, leihoak itxi-itxiak eta iluntasunari begira, iluntasuna ulertzen ez dakiela badakien arren. Erridikulua iruditzen zaio egoera, erridikulua bere burua. Eta barrez hasi da, barre baxu eta zintzoaz, bere buruaz barre egiten duten horiena bezalakoa. Kotxea martxan jarri du eta gidatzen hasi da, eta leihoak ireki ditu galderak, amorruak eta minak basoan barreiatzen utziz, bere barrearekin batera hegan egiten utziz. Ardurak onartzeko gai da, aurrera egiteko gai da, begirada hori bestearen esku dagoela onartzeak lana ekarriko dion arren, aurre egingo diela doluari eta ulertzen ez duen guzti horri. Eta pinuditik atera da, gelditu gabe, kotxean sartzen diren eltxoak harrapatuz. Landak eta auzoak zeharkatu ditu, gaueko usaina eta astoen usaina eta ahuntzena eta urrutiko eukaliptoena arnastuz, semaforoz eta “kontuz, animaliak” dioten seinalez betetako herriko errepidera itzuli den arte. Eta barrea baretuta, arnasa baretuta, errekonozitzen ez duen kurrinka antzeko soinu baten oihartzuna buru barruan, motel gidatu du landetxera bidean, ahal duen lasaien, ahal duen mantsoen, bizirautean jarraitzeko.

BASERRITARRAK: 6

“BUF, HOGEI BAT IZANGO ZIREN, E! Ikaragarria! Nik ez dut hainbeste putre elkarrekin inoiz ikusi. Baina ez ziren berehala jaitsi, bueltaka egon ziren, bi egun edo. Ez dakit zergatik egiten duten hori, ematen du mazeratzen uzten dutela edo, ez dakit, pixkat usteltzen utzi eta bigunago egoteko edo. Niri abisatu zidaten hilda zegoela hor, soroan, eta joan nintzen. Handi-handia zen e, apotea edo izango zen. Letaginak ez zituen, norbaitek hartuak, noski. Eta odolez beteta zegoen. Tiroren bat izango zuen edo, ez dakit. Eta base gorriari deitu nion, eramateko. Baina putreak etorri ziren eta riast! Ikaragarria! Base gorrikoak etorri zirenean jada ez zegoen ezer, hezurrik ere ez. Desagertu egin zen, guztiz”.